

GIZARTEEN EKONOMIA-ANTOLAKUNTZA

Ekonomia-jarduera:

Gizakiek beren beharrei erantzuteko egiten dituzten jardueren multzoa da. Hau da, ekonomia-jardueren helburua jendeak behar edo nahi dituen ondasunak ekoiztea eta zerbitzuak ematea da.

Ondasunak:

Ekonomia-jardueraren bidez eskura daitezkeen produktu materialak. Ondasunak *iraunkorrak* (denboraldi luze samarrean erabiltzen ditugunak; adibidez, altzariak) edo *ez-iraunkorrak* (erabilera batean edo hainbatean kontsumitzen ditugunak; adibidez, elikagaiak) izan daitezke.

Zerbitzuak:

Bezero bati eskaintzen zaizkion ahalmen intelektual edo tekniko huts batez baliatzen diren jarduera ekonomikoen multzoa. Adib.: irakaskuntza, osasuna, merkataritza, e.a.

Kapitala:

Ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko erabiltzen diren baliabideen multzoa. Hiru kapital mota daude: *kapital fisikoa* (makinak, lantegiak), *giza kapitala* (enpresaburuak eta enplegatuek) eta *finantza-kapitala* (dirua).

Zerga:

Gastu publikoei aurre egiteko, negozio edo jarduera ekonomiko nahiz juridikoak direla eta, estatuak hiritarrei ezartzen dien karga. Bi zerga mota daude: *zuzeneko zerga*, errenta, soldata eta ondasunei ezartzen zaiena; eta *zeharkako zerga*, kontsumo-produktuei ezartzen zaiena.

Sindikatuak:

Interes komunen defentsarako eratzen den langile-elkartea, langileen interes sozial, ekonomiko eta profesionalak defendatzeko eta sustatzeko helburuarekin. Lehenengoak Britainia Handian sortu ziren XIX. mendean.

Sektore publikoa:

Estatuak ekonomia eta gizarte-arloetan egiten dituen jardueren eta ekimenen multzoa. Herritarrek eta enpresek ordaintzen dituzten zergeri esker egiten diren ekimen eta jarduerak dira. Adib.: administrazio publikoa, zerbitzu publikoak, e.a.

Prezioa:

Produktu edo merkantzia baten azken balioa, eskaintzaren eta eskariaren arteko orekaren araberakoa.

Kostea:

Produktu baten ekoizpen eta banaketan erabilitako baliabideen diru-balioa. Kosteturrak hauek dira: lehenagien eta energiaren prezioa, makinetan eta instalazioetan egindako inbertsioak, soldadak, e.a.

Mozkina:

Salmenta-prezioaren eta koste-prezioaren arteko aldea da (irabazia, etekina).

Enpresa multinazionala:

Kapitalak eta jarduerak estatu desberdinetan hedatuta dituen enpresa. Langile kopuru handia izaten dute. Adib.: automobil-enpresa handiak.

Lehen sektorea:

Naturatik baliabideak lortzeko eta erauzteko jardueren multzoa. Adib.: nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, baso-ustiapena, e.a.

Bigarren sektorea:

Lehen sektorearen bidez lortutako baliabideen edo produktuen eraldaketarekin lotutako jardueren multzoa. Industriaz gain, eraikuntza eta meatzaritzaren esparruko hainbat jarduera ere hartzen ditu barne.

Hirugarren sektorea:

Gizarteari zerbitzu bat eskaintzen dioten jardueren multzoa. Hirugarren sektorean edo zerbitzuen sektorean era askotako jarduerak daude, hala nola: merkataritza, garraioa, turismoa, hezkuntza, osasuna, e.a.

Lana:

Ondasunak ekoizteko eta zerbitzu erabilgarriak emateko balio duen giza jarduera oro, bai fisikoak bai burukoak.

Natura baliabideak:

Gizakiak ondasunak eta kontsumo-produktuak ekoizteko erabil dezakeen guztia da, naturan aurkitzen duen bezalaxe. Adib.: ura, basoak, petrolioak, e.a.

Ekonomia-eragileak:

Ekonomiaren funtzionamenduan esku hartzen duten banakoak, taldeak eta erakundeak dira. Produktuak eta zerbitzuak ekoizteaz, trukatzaz eta kontsumitzeaz arduratzen dira. Hiru ekonomia-eragile nagusi daude: *familiak, enpresak* eta *Estatua*.